

SARRERA

Gure taldean hainbat ideia izan genituen, baina azkenean aproposena iruditzen zitzaiguna aukeratzea erabaki genuen, txirrindularitzarako txaleko erreflektante bat, errepideetan ibiltzan txirrindularien segurtasuna bilatzeko asmoarekin.

Txalekoan keinukari batzuk instalatzea erabaki dugu.

Gure bezeroek, produktua erosteaz gain, alokatzeko aukera izango dute.

Produktu hau alokatzean bi helburu lortzen ditugu: batetik, gure produktua erosi gabe frogatzeko aukera izango dute, horrela behin frogatuta, bezeroak gustoko izan badu erosi dezake; eta bestetik, erabiltzen ez diren produktuei erabilera bat emango zaie.

